

Asarreak kaian

Txalopak arratsalde erdian sartu ziran kaian.

Ondardi'n, iru-lau kai egozan aldi aretan.

Ondar muntu zabalak egiten ziran, ibaiaren itxasoratzean, eta eurak lagaten zituen bitarte edo ur-uneei, kai txiki edo portu-solo ta abar deitzen eutsen, eta tarte guztiak, urtsu nai legor, kaitzat artzen ziran. Baiña esateko kaia bateri deitzen eutsen.

Alakotan gordeten zituen euren txalopak ango arrantzaleak.

Amaika ziran ur zabalera urteten ebenak.

Lebatz banakak ekarrezan, eta kabratxoak, eta fanekak. Tantorta txiki eta andira joan ziran egun orretan.

Batzuk maiteago eta ezagunago zituen Lumatxa, Lekeitiozulo eta inguruko kalak.

Baiña egun aretan, kala areitatik aurreko egunetan ez ebela ezer ekarri eta ara joan ziran deilarien borondatez.

Etxera sartu eta Simon'en urteera jakin eben, ondartzara urreratu orduko, Paulo'k esanda.

Eurak baiño beranduago eldu zan Simon.

Molla lako arritzara urreratu orduko, Paulo ondoratu jakon, deilarien izenez, illuntze ber-bertan Kofradira joatekota.

Simon'ek erantzun eutsan egun aretan ez ebala arrantzatu Kofradian saltzera atarateko arraiñik, eta ez eukala joateko asmorik.

Berba zoliak esan eutsezan alkarri. Garratzak. Eta loiak, zikiñak, ganorabako ustelkeriak.

Arrokeritik alukeria jo eben. Itxasotik basatzara.

Bata okerra, bestea zitala; bata setatsua, bestea ankerra;

batek eztena eta besteak pozoia.

Inguruan batu ziran gizon banakak lotsatu egin ziran eta ixildu, euren jardun eta auera gordiñagaz.

Iñoiz arrantzaliak alkarregaz errietan jardutean, ba ekien laster lanbas, matxete edo erramu berberagaz alkar zemaitzen.

Paulo eta Simon´ek berbaz erabillen autua, baiña mintsu, zaurigarri. Esan eikean iñoiz lenago be euren artean zerbait eukiak zirala. Lenago be itxasoan edo kalean, asarre biziak eukiak zirala.

Itxuraz, txalopa baten alkarregaz ibili ziran. Simon patroi. Eta onek txalopatik kanpora atara eban Paulo, itxasorate batzutan makal egoan aitzakiz joateari laga eta etxean geratu zalako, eta egun beretan tabernetan ibili zala jakin eta baten berak billatu be bai.

Aurrerago be beste zerbait eukiak ei ziran. Beraz or dago euren asarrearen kakua.

Irakurlea: Larraitz Agirrezabala, Balmaseda